

"GALDU" TXAKURRA DALA-TA

Zubiri'tar Iñaki jaunaren liburu au oso atsegiñez irakurri dot asieratik azkeneragiño. Pozik irakurriko neukez beti onelako eleberri politak, eta Olazar'tar Martin jaunari be atsegingarri izan yako (ikusitako ZER, 30'garren zenbakia, 3'gn. orrialdea).

Baiña liburuaren erizpidea egitean, auxe diño Olazar'ek: «Joskeran be ikututxu batzuk egingo geunskioz, esaterako beste baten berbak aitatzean «san eban Motxo'k» barik «Motxo'k esan eban» eta olakoak idazten diranean».

Alan be, era biak erabili daitezke, esaerearen esanaia zein dan jakinez gero. Baiña ori jakiteko, aurretiko esanaldia (frasea) bear da jakin: «esan eban Motxo'k» esanda bakarrik, ezin esan daitezke zuzen ala oker dagoanik. Emen gaia labur-labur:

Era bata: «Zoaz ortik, esan eban Motxo'k»; «etxera joan daiteela esan eban Motxo'k». Onelako esaeretan zuzen be zuzen dago esanaldia: berba indarduna (inquirido) «zoaz ortik» eta «joan daiteela» dira; beraz, aditz nagusiaren aurre-aurrean ezarri bear.

Beste erea: «Zoaz ortik, Motxo'k esan eban». Emen, barriz, berba indarduna «Motxo'k» itza da. Azken-era onetan, *Motxo* da «zoaz ortik» esan ebana, Motxo, eta ez Peru, Txomin, Aitor, ez beste inor, Motxo baiño. Eta orregaitik, «Motxo'k» itza jarri bear aditz nagusiaren aurre-aurrean, berba indarduna da-ta. Ona emen beste adibide bat: «Benetan dirautsuet —erantzun eban Jesus'ek...» Esanaldi au ez leuke inok esango beste onetara: «Benetan dirautsuet —Jesus'ek esan eban—...».

Orregaitik, ba, barriri esan: «esna eban Motxo'k» edo «Motxo'k esan eban» izentaturik bakarrik, ezin esan daitezke zuzen ala oker dagoanik: esanaldi *osoa* agertu bear da.

Onelako esanaldiak ainbat datoz Ebanjelioetan; orrexegaitik izan dot nai puntu ori zelanbait argitzea.

Gai onen aurretik, beste puntu bi be aitatzen dauz Olazar jaunak, baiña ez dau adibiderik (ejenplurik) jarten. «Y naikoa ugari» erabilten dauala be da-diño; ez dot uste *yat*, *yako*, *yake*, *yoian*, *yoiazala* ta orreilakoetan izan ezik erabilten dauanik.

Onenbestez, naikoa. Eta zorionak Zubiri adiskideari.

KEREXETA

J U L E N E AZPEITIA (Arritokieta)

Yo niaestra,
a veces olvido
las palabras
y solo escribo
AMOR
en el tablero.
Maria Elena Quintero.

Julene Azpeitia. Irakasle euskalduna, benetako gogo sendoz ta erritar senez igaro zan, erakutsi ederrak emonez azaldurik euskereaganako maitasuna:

Irakasle argia. Zumaiarra sorkunez. Euskerearen aldezle bioztun ta kutuna; larogei ta amabi urte luze, astunez, erroturiko zugatz goilari ta bakuna.

«Arritokieta» andra zabal, etxe zalea: ilbarri dogun aberkide ta idazlea, emakume itxarokor, apal, dotorea..., kristau doaitasunezko ekanduz betea.

Ainbat urteren buruz umeak eskolatuz olbaltzetan zenbakiak ta, Euskalerraren

arduratasunez gogoak, biotzak argituz, ta aldibera, azi ona erein ondoren...

Ta, ixilik aldegin badausku be... Bai, zelan zelan aztu aren izena ta zeintasuna, bizi-zear irakatsiz, idatziz, ainbat lan iakingarri ain oparo eskeiñi euskuna?

Maitetasunezko irakasbide apalak —ipuin, olerki ta idazlan argigarriak— amets eztiz beteriko berbagai zabalak, euskal alorrera gogo betez ekarriak.

Argi-izpi eredugarri ta bizi-biziak, euskerearen sendabidezko itxaropenez altxorturiko zillas, urregorriteriak, erriari opalduak benetako maitasunez.

Biotz aundiko «maistra» ori, olerkariak argira dakar, bizi dedin emen, betikoz, guk be Ari jarraituz, gogo ta asmo sendoz, aurkitu daiguzan urrezko ari barriak.

Muniategi'tar Sabin